

JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK LAGATZEKO KONTRATUA

_____ en, 20 ____ ko _____ ren ____ a

BILDU DIRA

ALDE BATETIK,

Izen-abizenak: _____.

Helbidea: _____, _____ kalea, ____ zk.

NANa: _____, egilea (lagatzailea) den aldetik.

BESTE ALDETIK,

Izen-abizenak: _____.

Helbidea: _____, _____ kalea, ____ zk.

NANa: _____, honako modu hauetako batez jardunda (markatu laukietako bat):

Bere izenean eta bere eskubidez (lagapen-hartzailea),

_____ erakunde lagapen-hartzailearen legezko ordezkari moduan. Identifikazio fiskaleko kodearen zk.:

_____. Helbidea: _____, _____ kalea, ____ zk.

ADIERAZTEN DUTE:

I: _____ jauna/andrea honako izenburu hau duen lanaren egile eta ustiapen-eskubideen jabea dela:

“ _____ ”.

II: Lanaren egilea den aldetik, _____ jaunak/andreak interesa du haren ustiapen-eskubideak honi lagatzeko (markatu laukietako bat eta bete testua:

_____ jauna/andrea (lagapen-hartzailea)

_____ entitate lagapen-hartzaileak,

halaber, interesa du lagapena onartzeko eta, horretarako, estipulazio hauek hitzartu dituzte:

ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA.- LAGAPEN ESKLUSIBOA

_____ jaunak/andreak izenburu hau duen lanaren ustiapen-eskubide guztiak lagatzen dizkio bakarrik: “ _____ honako honi (markatu laukietako bat eta testua bete): _____ ”.

_____ jaun/andrea

_____ entitatea,

zeinak kontratu honetan adierazitako eran onartzen baitu lagapena.

Alde biek agiri honetan xedatu ez duten alderdietan Jabetza Intelektualaren Testu Bateginaren 43. artikuluan eta hurrengoetan “*inter vivos*” eskubide-eskualdaketarako ezarritakoa aplikatuko da (Testu Bategina apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

BIGARRENA.- LAGATAKO ESKUBIDEAK ETA AURREIKUSITAKO USTIAPEN MOTAK

Hauek dira lagatako ustiapen-eskubideak: lanaren erreproduzioa, zabalkundea, komunikazio publikoa eta eraldaketa, gaur arte ezagutzen diren ustiapen-modalitateetako edozeinetan.

HIRUGARRENA.- LAGAPENAREN IRAUPENA

Aurreko estipulazioak aipatzen duen lanaren gaineko ustiapen-eskubideak lagatzen ditu egileak, Jabetza Intelektualaren Testu Bateginak eskubide horietarako aurreikusten duen gehienezko epean, hau da, jabetza publiko bihurtu arte.

LAUGARRENA.- LAGAPENAREN LURRALDE EREMUA

Ustiapen-eskubideen gaineko lagapenak munduko herrialde guztietarako balio du.

BOSGARRENA.- ORDAINSARI PROPORZIONALA

Lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak erabaki dute egileak lanaren ustiapenagatik diru-sarreraren ehuneko _____ jasoko duela lagapenaren ordainetan.

OROHARREKO ORDAINKETA (ORDAINKETA PROPORZIONALAREN ALTERNATIBA)

Lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak erabaki dute egileak _____ € (_____ euro) jasoko dituela lagapenaren ordainetan.

Lagapen-hartzaileak ordainduko du diru-kopuru hori, zati bakar batean eta oroharreko zenbateakoan.

Oroharreko ordainketa Jabetza Intelektualaren Testu Bateginaren 46. artikuluko 2. idatz-zatiko ___ letran jasota dago.

SEIGARRENA.- JURISDIKZIO APLIKAGARRIA

Kontratu hau interpretatzeko edo betetzeko gorabeherarik sortuz gero, alde biak _____ Epaitegi eta Auzitegien mende geratuko dira, egokitu dakiekeen foru jurisdikzionalari espresuki uko egiten diotela.

Eta esandako guztiarekin ados daudela adierazteko, kontratu hau sinatzen dute alde biek, ale bitan eta ondorio bakarrarekin, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

LAGATZAILEA

LAGAPEN-HARTZAILEA

SINADURA LEGEZTATZEKO EGINBIDEA

Agiri hau sinatzen duen Jabetza Intelektualaren Euskadiko Lurralde Erregistro funtzionario den
..... jaunak/andreak egiaztatzen du goiko sinadura
horiek jaunarena/andrearena
eta jaunarena/andrearena
.....(e)n,(e)koaren (e)(a)n

Sin.

OHARRA: Agiri honekin batera, dagokion zerga ordaindu izanaren justifikagiria aurkeztu behar da, autonomia erkidego eskuduneko ogasun publikoan egindako deklarazio-kitapena edo zerga-salbuespena egiaztatzen duen dokumentua.